

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gautegiz-Arteagako Udala****Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Errolda 2019**

22/2019 Alkatearen Dekretuaren bitartez, 2019ko mekanika trakziozko ibilgailuen Udal Errolda onarturik, jendaurrean ipinita geratzen da aipatutako agiria Udal Idazkari-tzan lanegunetako hamabost (15) egunez, iragaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta ediktuen taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, epealdi horretan interesatuek aztertu ahal dezaten eta hala egokituz gero, haren aurka bidezkotzat jo daitezzen erreklamazioak egiteko.

Iragarki honek, goian adierazitako zergak dituzten zergadunentzako kitapenen jakinarazpen kolektibo bezala balioko du, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 100.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Errolda eta hari batutako likidazioak onartzeko egitaratzen aurka birjarpenezko erre-kurtsoa jarri ahal izango da, Alkatetzara zuzenduta, erroldaren behin-betiko onespentik hasita zenbatu beharrezko hilabeteko epean. Errekurtsoa jartzeak ez du zerga ordaintzeko betebeharraren etendura ekarriko.

Ordaintzeko epea, lekua eta erak

- a) Errekargurik gabeko epea: 2019ko maiatzaren 15ean hasita 2019ko ekainaren 30era arte (biak barne).
- b) Premiamendu bidetik ordaintzeko epealdia (dagokion gainkarguarekin eta berandutzako korrituak, gastuak eta kostuak, legez eskatu daitezkeenak gehituta): 2019ko uztailaren 1etik aurrera.
- c) Ordaintzeko lekua eta era: Helbideratu gabeko ordainagirien ordainketa Kutxabank, S.A., erakundearen bitartez egingo da, zergadunen etxeetara igorriko diren inprimakien eta beraien erakundeek helbideraturiko ordainagirien jokoak aurkeztuz.

Gautegiz-Arteagan, 2019ko martxoaren 4an.—Alkatea, Juan Felix Naberan Ozamiz